

# BADUGU, BADAGO

EUSKARARI BURUZKO IBILBIDEA

DBHKO BIGARREN ZIKLOKO ETA DBHOKO IKASLEENTZAT

# STM

## San Telmo Museoa

IRAKASLEENTZAKO KOADERNOA

# BADUGU, BADAGO

## EUSKARARI BURUZKO IBILBIDEA

### DBHKO BIGARREN ZIKLOKO ETA DBHOKO IKASLEENTZAT

San Telmo Gizarte Museo bat da, euskal kulturaren alor guztiak jorratzen dituena, erakustareto iraunkorretan edota aldi bateko erakusketetan zein tailer edo bestelako jardunbideetan.


"Badu, bada" aldi bateko erakusketaren ondotik, San Telmo Museoa "BADUGU, BADAGO" euskarari buruzko ibilbidearen bidez, bisitariak euskararekin dituzten harreman motak agerrarazi nahi dira. Azalez proposamen arin eta jostagarriak diren arren, edukiz mamitsuak eta zer pentsa ematen dutenak dira.

Halaber, proposatzen den ibilbidea, ohiko gidatua baino, dinamizatua da. Alegia, dinamizatzailerik taldea xaxatu, zirikatu, hitz egitera animatuko du, galderekin, proposamenekin, hitz jokoekin... Bisitariaren jarrerak aktiboa izan behar duenez, haien esperientziak eta iritziak, parte-hartzeak eta bizi diren inguru soziolinguistikoak interesatzen zaizkigunez (zenbat hizkuntzatan bizi diren, eta nola bizi duten –dugun– hizkuntzen arteko dantza hori), dinamizatzailerik bideratuko du jarduna, arina eta bizia izan dadin, bai erakustareto iraunkorretan, bai hezkuntza-tailerrean.

Horrexegatik ere, hemen egiten diren aktibitateen proposamena orientabide bat baino ez da, taldearen arabera molda daitekeena. Ez da ibilbide itxia, bada, proposamen irekia baizik. Taldeak bisita autonomo bat egin nahi badu, museoko dinamizatzailerik gabe, hementxe ditu egin daitezkeen ariketen adibideak, lagungarri; baina irakasleak edo arduradunak askatasun osoz erabaki dezake nolako ibilbidea egin.

Ordenari dagokionez, ez da garrantzizkoa lehenik tailerrean jardutea eta gero erakustareto iraunkorretan edo alderantziz. Areago, askatasun horrek ahalbidetzen du bi talde batera aritzea, bata espazio batean, eta bestea, bestean. Kontuan hartuta ariketa egoki gauzatuko bada taldeek gehienez 25na lagunekoak izan behar dutela, horrela denbora berean bi ikasgela edo autobuskada bat egon daitezke.

**Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatu da.**



## **Bisitaldiaren nondik norakoak:**

### Bisitaren hasiera, harreran edo, eguraldi ona eginez gero, plazan bertan:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta egin beharreko bisitaren nondik norakoak.

### HEZKUNTZA-TAILERREAN:

Bertan egin beharreko aktibitateen gauzatzea.

### GOIKO SOLAIRUKO klaustroan eta industrializazioari buruzko erakustaretoan:

Industrializazioarenaz gain, klaustroko lau aldeetan ariketa bana dago, eta azkenekoan bukatzen da bisitaldi dinamizatua.


### Bisitaldia bukatzeko:

Hain zuzen klaustroko azken ariketaren ondoko euskarari buruzko modulu elkarreragilean, nahi izanez gero, ikasleek **ukipen-pantailan** aritzea izango dute, ikusitakoaren errepasso modura: Edukiak bisitaldiarenak dira, era ludikoan aurkeztuak.

Bertatik hurbil dagoen dorrerantz joanda, jaitsi eta dendan barna harreraraino bueltatu; handik plazara atera daiteke edo, **lehenago egin ez bada, Hezkuntza-Tailerrera jo, azken ariketak egiteko.**



GOIKO SOLAIRUA



## **SOINUAK MUNDUAN DAUDE, BAINA HIZKUNTZAK... GURE BURUETAN**

### **LEHENENGO ARIKETA: HITZETIK HIZKUNTZARA**

#### **Zer dira hizkuntzak?**

#### **Soinuak kode bihurtu eta zentzua ematen dieten moduak.**

Ergatiboa zer den badakizue? Zein hizkuntzatan topatzen da halakorik? Eta aglutinante edo eranskaria? Halako hizkuntzarik ezagutzen duzue?

Filologoek zenbait irizpideren arabera, euskara, groenlandiera, Andreetako aimara... zaku berean sar genitzake. Baina horrek oso gutxi esango liguke hizkuntza bakoitzak transmititzen duen mundu-ikuskeraz.

Hizkuntza bakoitza soinuak (eta geroa zeinuak) egituratzeko era bat da, interpretatzen zailak izaten ez diren kode-multzoak. Horregatik, hizkuntzak artifizialki sor daitezke: Esperantoa ezagutzen duzue? Avatar ikusi al duzue?

**Baina hizkuntza bati bizia ematen diona**, eta mundu-ikuskerak bat izatzeko bide bilakatzen duena, **hiztun komunitate bat da**, beste hiztun-komunitateekin etengabeko harremanetan dagoena eta bere hizkuntza etengabe moldatzen, aldatzen, eraberritzen ari dena.

Hori da euskararen kasua, eta munduko erdara guztiena.

Ergatiboaren erabilerak euskara eta groenlandiera batzen ditu. Baina filologoek ikergaiez gain, euskaldun egiten gaituena da lehenagotik iritsi zaigun kode bat hartu, bizi garen errealitatean erabili eta datozen belaunaldiei helaraztea. **Gaur egun, euskaldun izatea gogo bat da.**

Eta hori are nabariagoa da euskaldun hutsik ez dagoenez geroztik. Zertarako balio du euskarak 7.000 hizkuntzako munduan? Egia esan, balio, balio... zenbat dira benetan balio duten, benetan beharrezkoak diren hizkuntzak, **biztanleen erdiak baino gehiago elebidun diren munduan?**

**BIGARREN ARIKETA:****EUSKAL HERRIA... EUSKARAREN HERRIA?****Zenbat hizkuntza mintzatzen dira Europan?**

Non mintzatzen da belgieraz? Ba al dago behealemanierarik?

Romani eta errumaniera gauza bera al dira?

Juduerak: hebreera, yidish, sefardi: hizkuntza batek lurralde bat behar al du?

Euskara batua "laborategikoa" omen da, eta norvegiera "batua"?

Eskoziera zer hizkuntza da, gaelikoa ala Eskoziako ingelesa?

Zergatik ez da asturiera hizkuntza, eta luxenburgera bai?

Non dago hizkuntzaren eta dialektoaren arteko aldea edo muga?

**Zenbat euskaldun daude zuen herrian?**

% zenbat dira horiek?

Adinaz nola banatzen dira?

Hiztunen kopurua eta hizkuntzaren bizitasuna gauza bera dira?

**Sare sozialak eta euskara**

Teknologia berrien bidez komunikatzen zarete?

Txioka ari zarete? Edo tweet egiten duzue? No decís ni pío?

Edo nahasi egiten al dituzue hizkuntzak?

Akats ortografikorik bai? Nahita ala nahi gabe?

Garrantzirik ematen al diozue grafiari? Mendeetan zehar, hizkuntza idatzia goi mailako kulturaren parekotzat hartu izan da.

Gauzak aldatzen ari al dira... zuek aldatzen ari al zarete?

Lehen belaunaldi digitala zarete, eta lehen belaunaldi poliglota, gutxienez hiru hizkuntza ezagutuko dituen, eta ikus-entzunezko baliabideei esker idazkuntzaren behar handirik ez omen duena.

Halako munduan, nola ikusten duzue zuen burua? Euskaldun?

**HIRUGARREN ARIKETA: *JAKITEAK EZ DU OGIRIK JATEN*****EUSKARA, GUREA... ZENBAT HIZKUNTZEKIN BATERA?****Gaskoia non mintzatzen da, Frantzian ala Espainian?**

Eta Euskal Herrian? Eta lehen?

Espainian lurralde hirueledun ofizial bakarra zein den badakizue?

**Zenbat estatutan mintzatzen da katalanez?**

Eta Espainian, zenbat autonomia-erkidegotan?

**Espainolez egiten al da Iberiar Penintsulan, Espainiatik harago?**

Portugalgo Terra de Mirandan zer mintzatzen da?, Gibraltarren?

**Espainian zenbat hizkuntza mintzatzen dira?**

Ceuta eta Melilla barne?

**Euskaldunok estres linguistikoa pairatzen omen dugu...**

Erdaldunek ere bai?

Ala, elebidun garenez gero, jadanik ez dugu estres linguistikorik pairatzen, berdin zaigulako batean zein bestean mintzatzea?

Baina, pairatzen badugu, zein da "sendagaia"?

## LEHEN ETA ORAIN, EUSKARAZ NONAHI

### Goiko klaustroan eta industrializazioaren erakustaretoan egin beharreko ariketak

- **Guiris: soldaduetatik turistetara**  
Zeintzuk izango ziren girisak? Kontuan hartu nafarreraz "cristino" giristino esaten zutela, eta Karlistadetan atzerriko tropak Isabelen II.aren ama Cristinaren alde etorri zirela.
- **Noiz da ilbeltza? *Euskal Esnalea* aldizkarian**  
Euskara batuak ez du lehenetsi hilabete bat izendatzeko forma hau. Urtea harekin hasten da.
- **¡AMA! Zure semeak soldaruzka Euskalerian egingo du**  
Zer antzematen diozue berezi gerra aurreko grafia honi?
- ***Zortzi oren laneko, zortzi oren lo egiteko, zortzi oren deskantsatzeko... agradableki bizitzeko!* Euskara hau nongoa da?**  
Bilbo inguruko meategietako eskualdea guztiz erdaldundua zegoen XIX. mende bukaeran; baina Iparraldean bazegoen euskarazko kazetaritzarik.
- **Sega zorotz-iraunkora. Lan-ereza ta ugaria: Zein da segalariaren kuttuna?**  
Euskarazko publizitatearen hasikinetan...
- ***Ez dok amairu...* Nondik dator halako izena?**  
Arte abstraktuak euskal sustrai estetiko sakonenetan bezala, euskarazko kantagintza berriak ere euskal ahozko tradizio zaharrenean bilatu zituen kultur oinarriak: *Ez dok amairu* bizkaieraz eta toka da, Samartintxikik deabruari jakinduriaren lehian irabazi zioneko: munduan hamabi egia handi omen daude, hamahirugarrenik, ez.



## Erakunde laguntzaileak:



## Patrono pribatuak:

